

5. GAIA:

PRACTICUMAREN PRESTAKUNTZA IBILBIDEA GAINERAKO IRAKASGAIEKIN LERROKATUTA

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Erizaintza lanetan jarduteko prestakuntza ematen duten tituluaren baldintzak ezartzen dituen CIN/2134/2008 Aginduaren (1) modulu batean Practicumaren eta Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak adierazten dira eta practicumari dagokionez, honako hau zehazten du: *Praktika kliniko aurre-profesionalak, txandaka eta bakarka eta gaitasunen amaierako ebaluazioarekin. Praktika horiek egingo dira balore profesionalak, asistentzia komunikazioko gaitasunak, arrazonamendu klinikoa, kudeaketa klinikoa eta iritzi kritikoa barneratzea ahalbidetzen duten Osasun Zentroetan, Ospitaleetan eta beste asistentzia zentroetan. Praktiketari helburu orokorretan eta Titulua osatzen duten gaietan deskribatzen diren gaitasunei loturiko printzipio eta baloreetan oinarritzen diren erizaintza ezaguerak, trebetasunak eta jokabideak barneratuko dira.*

Aipatutako aginduan zehaztutako erizaintzako gaitasun orokorren artean, honako hauek daude: *...Erizaintza zainketak planifikatzea eta gauzatzea pertsona, familia eta taldeentzat, praktika klinikoko eta asistentzialeko giden bitartez, zeinetan osasun arazo bat diagnostikatu, tratatu edo zaintzeko prozesuak deskribatzen baitira, osasunean emaitzak lortzera orientatuta, zainketen inpaktua ebaluatuz... Bizitza estilo osasuntsuak eta autozaintza, bultzatzea, jarrera prebentiboak eta terapeutikoak izatea babestuz... Erizaintzako interbentzioak ebidentzia zientifikoan eta eskura dauden baliabideetan oinarritzea... Profesionalen osatutako talde batekin lan egitea, oinarritzko unitate gisa, non asistentzia erakundeetako profesionalak eta gainerako langileak egituratzen baitira, diziplina bakar edo anitzeko eta diziplina arteko ikuspegitik... Erizaintzako zaintzen oinarria osasunaren arreta integrala izatea; hots, profesionalen arteko lankidetzaren, prozesuen integrazioa eta laguntza jarraitua... Pazienteari eta familiei begira, erosotasunerako eta sintomen arretarako neurriak hartzeko estrategiak ezagutzea eta egoera terminalen dauden gaixoei zaintza aringarriak ematea egoera hobetzeko...*

Hirugarren gaian aipatuenez, UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren titulua gaitasunen eredu oinarri hartuta diseinatu da, practicumaren ardatz egituratzailatzat hartuta, eta, horren ondorioz, harreman zuzena eta koherentea dago practicumaren eta tituluaren gainerako irakasgaien artean.

Gaitasunetan oinarritutako ikasketa plan bat ez da hainbat irakasgaien batura edo elkarren segida huts bat (2,3). UPV/EHUko Erizaintzako Graduaren titulua diseinatzeko prozesuan gaitasunak izan ziren irakasgai teoriko-praktikoen eta practicumaren abiapuntua eta helburua. Horregatik, logikoa eta naturala da irakasgaien arteko lotura.

CIN/2134/2008 Aginduaren Erizaintzako Zientzien moduluen gaitasunetan zehaztenenez (1), ikasleek gaitasunak garatu behar dituzte zainketak emateko bizitza zikloaren hainbat unetan, hala nola jaioberrietan, haurtzaroan,

nerabezaroan, helduaroan eta hirugarren eta laugarren adinean, eta hori guztia pertsona bakoitzaren osasun-gaixotasun prozesua kontuan hartuta.

Erizaintzako ikasleek, gaitasunak garatu ahal izateko, practicumaren irakasgaiak hainbat testuingurutan egin behar dituzte (lehen mailako arreta, ospitaleak, zentro soziosanitarioak...).

Gipuzkoako osasun sistema publikoak eta pribatuak eskaintzen dituen arretako zentro eta unitate guztien ezaugarriak aztertu ondoren, kanpoko praktiken plazak arlo hauetan sailkatu dira (4,5):

- Barne Medikuntzako Unitateak (Barne Medikuntzako unitateez gain, Pneumologia, Kardiologia, Digestiboa...).
- Kirurgiako Unitateak (Kirurgia Orokorra, Traumatologia, Kirurgia Baskularra, Urologia, Kirurgia Plastikoa, Kirurgia Torazikoa, ospitaleratu gabeko kirurgia unitateak...).
- Zentro Gerontologikoak eta Soziosanitarioak (Zahar egoitzak, Zentro Gerontologikoak eta Soziosanitarioak).
- Zainketa Kritikoaren Unitateak (Larrialdiak, Zainketa Intentsiboen Unitateak eta Bizkortze Unitateak).
- Ama-haurren unitateak (emakumeak eta haurrak zaintzeko unitateak).
- Lehen Mailako Arretako Zentroak
- Unitate eta Zerbitzu Berezien arloak (Ebakuntza gela, Psikiatria, Onkologia, Onkohematologia, Etkez-etxeke Ospitaleratzea, Hemodinamika, Nefro-dialisia, Erradiologia Interbentzionista, Erradiologia Orokorra, Endoskopiak, Enpresa Erizaintza, Espetxeetako Erizaintza...)

Practicumera joan aurretik, ikasleak fakultatean beste irakasgai batzuen askotariko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak landu eta barneratu behar ditu, practicum bakoitzean definitutako gaitasunak garatu ahal izateko; hori dela eta, ikasleak practicum bakoitza zein arlotan egin dezakeen erabaki zen. Horretarako, ikasketa plan osoa, irakasgai teoriko-praktikoen gaitasunak (1. irudia) eta osasun erakunde publiko eta pribatuetan dauden plazak aztertu ziren. Irakasgai bakoitzean garatzen diren gaitasunak Fakultatearen webgunean argitaratutako irakaskuntza gidetan kontsultatu daitezke (6).

ASTEAK																	ASTEAK																	
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	#	33	34	35	36	37	
1º Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa I (6 ECTS) Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa II (6 ECTS) Osasun Publikoa (6 ECTS) Informazio Sistemak eta Datuen Analisia (6 ECTS) Osasun Zainketei Aplikatutako Zientzia Psikosozialak (6 ECTS)																Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III (6 ECTS) Erizaintzaren Oinarri Teorikoak (6 ECTS) Patologia. Oinarrizko Zaintzak (6 ECTS) Antropologia, Etika eta Legedia (6 ECTS)											*	HASIERA ziklo 1 (6 ECTS)						
ASTEAK																	ASTEAK																	
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	#	33	34	35	36	37	
2º Farmakologia (6 ECTS) Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan (6 ECTS) Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak (6 ECTS) Erizaintza Klinikoa I (6 ECTS) Bizi Zikloaren Erizaintza I (6 ECTS)																PRACTICUM I ziklo 1 (12 ECTS)											Komunitate Erizaintza (6 ECTS) Erizaintza Klinikoa II (6 ECTS) Bizi Zikloaren Erizaintza II (6 ECTS)					*		
ASTEAK																	ASTEAK																	
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	#	33	34	35	36	37	
3º Erizaintza Klinikoa III (6 ECTS) Erizaintza Klinikoa IV (10 ECTS) Erizaintzako Zerbitzuen Kudeaketa eta Kalitatea (6 ECTS)																PRACTICUM II Ziklo 1 (8 ECTS)					*	HAUTAZKOAK 18 ECTS							PRACTICUM ziklo 1 (12 ECTS)					*
ASTEAK																	ASTEAK																	
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	#	33	34	35			
4º PRACTICUM ziklo 1																PRACTICUM ziklo 1							PRACTICUM ziklo 1											
																PRACTICUM IV -PRACTICUM V (54 ECTS)																		
																GrAL/TFG																		

1. irudia. Practicumaren eta tituluaren gainerako irakasgaien kokapena

Ibilbide egokiena egin nahian, practicumaren 7 zikloetan ikasle guztiak arlo hauetan praktikak egitea gomendatzen da:

- Bost ziklo arlo hauetan: Barne Medikuntza, Kirurgia, Zentro Gerontologikoak eta Soziosanitarioak, Lehen Mailako Arreta, eta Zainketa Kritikoaren arloa.
- Bi ziklo arlo hauetan: Unitate eta Zerbitzu bereziak eta/edo Ama-Haurren arloa.

Horrez gain, erabaki da zein ikasturtetan eta zein practicumetan egin behar diren praktikak arlo desberdinetan:

- Lehen mailatik aurrera: Barne Medikuntzako Unitateak eta Zentro Gerontologikoak eta Soziosanitarioak (Fakultatean erizaintzako oinarrizko zainketak lantzen dira 1. mailan)
- Bigarren mailatik aurrera: Kirurgia Unitateak (ebakuntza inguruko zainketak 2. mailako lehen seihilekoan lantzen dira).
- Hirugarren mailatik aurrera: Ama-Haurren arloa (ama-haurren zainketak 2. mailako bi seihilekoetan lantzen dira).
- Laugarren mailatik aurrera: Zainketa Kritikoaren Arloa (egoera kritikoan dauden pazienteen zainketak 3. mailan lantzen dira). Lehen Mailako Arreta Zentroak (garrantzitsutzat hartzen da hainbat egoeratan eman beharreko zainketak lotzea, lehen mailako arretarako planifikatutako ikaskuntza emaitzak garatzeko).

- Hirugarren mailatik aurrera eta, ahal bada, laugarren mailan: Unitate eta Zerbitzu Berezien arloa, ikasleek beren motibazio eta lehenetasunen arabera aukeratuko lukete.

Practicumaren ikaskuntza emaitzak gainerako irakasgai teoriko-praktikoekin lerrotatzeaz gain, practicuma egiteko "giltza" kontsideratuko ziren irakasgaiak zehaztu ziren; hau da, ikasleak practicuma egiteko gaitasuna eduki behar dituen irakasgaiak (1. taula).

1. taula. Practicuma egin ahal izateko "giltza" diren irakasgaiak.

Practicuma	"Giltza" irakasgaiak
2. maila (Practicuma I)	Zainketaren praktikarako sarrera (1. mailako praktikak)
3. maila (Practicuma II eta Practicuma III)	Zainketaren praktikarako sarrera (1. mailako praktikak) Practicuma I (2. mailako praktikak)
4. maila (Practicuma IV eta Practicuma V)	<p>1. mailako irakasgaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zainketaren praktikarako sarrera - Patologia: Oinarrizko Zainketak - Erizaintzaren Oinarri Teorikoak <p>2. mailako irakasgaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Practicum I - Farmakologia - Erizaintza Klinikoa I - Erizaintza Klinikoa II - Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan - Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak - Bizi Zikloaren Erizaintza I - Bizi Zikloaren Erizaintza II <p>3. mailako irakasgaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Practicuma II eta Practicuma III - Erizaintza Klinikoa III - Erizaintza Klinikoa IV

BIBLIOGRAFIA

1. Orden CIN/2134/2008, de 3 de julio, por la que se establecen los requisitos para la verificación de los títulos universitarios oficiales que habiliten para el ejercicio de la profesión de Enfermero. Boletín Oficial del Estado [internet], nº 174 (19 de julio de 2008) [consulta, 13/5/2021]. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/o/2008/07/03/cin2134>
2. Tejada Fernández J, Ruiz Bueno C. Evaluación de competencias en Educación Superior: Retos e implicaciones. Educación XXI. 2016 [kotsulta, 2021/6/2];19(1),17-38. Eskuragarri: Doi: <https://doi.org/10.5944/educxx1.12175>
3. Zabalza MA. El prácticum en la formación universitaria: estado de la cuestión. Revista de Educación. 2011;354,21-43.
4. Uranga Iturriotz MJ. Erizaintzako prestakuntzaren eboluzio historikoa Gipuzkoan. Praktiketako gaitasunen diseinua egungo beharrei egokitzeko. [tesia Interneten]. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013 [kotsulta, 2021/5/13]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/13404>
5. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kotsulta, 2022/4/1]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>
6. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Oferta. Estudios de Grado. Grado en Enfermería. Plan de Estudio. Créditos y asignaturas. [kotsulta, 2022/2/28]. Eskuragarri: <https://www.ehu.eus/es/web/guest/grado-enfermeria-gipuzkoa/creditos-y-asignaturas-por-curso>